



LANALDI LABURREKO LAN-KONTRATU MUGAGABEETAKO ORDU OSAGARRIEI BURUZKO ERANSKINA

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Kontratutako langileak, enpresaburuak eskatuz gero, urteko gehienez ordu osagarri egiteko konpromisoa hartzen du. Ordu horiek datan egindako, eta datan zenbakiarekin(e)ko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuan hitzartutako orduen¹ % dira.

BIGARRENA: Hitzartutako ordu osagarrien banaketak eta egiteko erak, aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan eta ordu osagarriei buruzko hitzarmenean xedaturikoa errespetatu beharko dute.

HIRUGARRENA: Enpresaburuak gutxienez egun lehenago² langileak ordu osagarriak zein egun eta ordutan egin behar dituen jakinaraziko dio, betiere aurreko ataletan jarritako gehienezko kopuruak errespetatuz.

LAUGARRENA: Ordu osagarriak egitean, Langileen Estatutuaren 34. artikuluko 3. eta 4. atalek, 36. artikuluko 1. atalak eta 37. artikuluko 1. atalak, lanaldi eta atsedenaldiei buruz diotena bete beharko da.

BOSGARRENA: Egindako ordu osagarriak ordu arrunt gisa ordainduko dira, eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriei dagokienez, bai eta prestazioen gabezialdi eta oinarri erregulatzailerei dagokienez ere, zenbatuko dira.

SEIGARRENA: Langileen Estatutuaren 12. artikuluko 5. g) atalean jasotako egoeretan, langileak hamabost egun lehenago jakinarazi eta ordu osagarriak egiteari uko egiten badiu, hitzarmena bertan behera gera daiteke.

ZAZPIGARRENA: Enpresaburuak ERANSKIN honetako betebeharren bat edo uztailaren 9ko 12/2001 Legearen lehen artikuluko seigarren puntuak (uztailaren 10eko EBO) aldatutako Langileen Estatutuaren ordu osagarriei buruzko 12.5. artikuluan jasotakoak bete ezean, nahiz eta hitzartuta izan, langileak ordu horiek egiteari uko egingo balio, portaera ez da zigorgarria izango.

Eta jasota gera dadin, honen hiru ale egin dira ondoren adierazitako tokian eta datan, eta alde interesatuek sinatu dituzte (3).

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)an

Langilea

Enpresaren ordezkaria

Dagokionean, adin txikikoaren
legezko ordezkaria

(1) Ordu osagarriak ezingo dira kontratuko ordu arrunten % 15a baino gehiago izan, sektoreko hitzarmen kolektiboak, edo, hori ezean, beheragoko mailako hitzarmenak, beste ehuneko bat xedatzen duenean izan ezik. Dena den, kasu horietan, portzentajea ezin da hitzartutako ordu arrunten % 60a baino gehiago izan. Ordu arrunt eta osagarrien baturak ezin du lanaldi laburreko lanaren legezko muga gainditu.

(2) Hitzarmen Kolektiboetan aurreikusitako epea jarriko da, eta hori ezean, 7 egunekoa.

(3) DATUEN BABESA.- Eredua honetan jasotako datuek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesa izango dute (abenduaren 14ko BOE).